



KULTURA: ANTZERKIA CHERNOBILGO UMEEI LAGUNTZEKO

Arrasate

2001.eko
martxoak 16
583. zenb.






Clara Ezkurra Urrutia

Uribarriko dohatsua

ARRASATE KRISTALDEGIA

BEIRAZKO ARTEA

Arrasatetik mundu zabalera



*Apirilaren 9an,
erakustoki berria
zabalduko dugu.
Bisita gaitzazu.*



*Soluzio
pertsonalizatuak*



Kontzeziño, 18 behea
Tel.: 943 77 07 74
943 77 16 59
Faxa: 943 77 07 74
uribesalgo@clientes.euskaltel.es

ZURE AUTOA PREST ZITU BIZIAN

Zerbitzu Azkarra
Aurretiko
hitzordurik gabe

NORTERKARen badakigu zein garrantzitsua den zure denbora.

Horregatik, orain, gure **ZERBITZU AZKARRA** jartzen dugu zure eskura.

Aurretiko hitzordurik gabeko zerbitzua, aditu onenek egindakoa, zure autoa prest **EZIN BIZKORRAGO** izan dezazun.

! MANTENURAKO ESKAINTZA BEREZIA !

Ordutegia

8:00 - 13:00
eta
14:30 - 19:30



BALAZTA-PASTILEN
eta 17 TOKI.
gehiagoren **DOAKO**
azterketa.
(IATen aurrekoa)



OLIOA ALDATZEA
7.500 pezetatik
aurrera
erdisintetikoa
10W40 iragazkiarekin.



! OPARI ZIURRA !

OLIOA ALDATZEAGATIK primerako **esku-argi** hau oparitzen dizugu, oso erabilgarria zure ibilgailuan beti izan dezazun.

IZAR AUTOAK

ALMOVIL

ALDIKAR

NORKAR

ALDIBI

Zigarrola, 1
ARRASATE
Tel.: 943 712 002



Nortekar
Zerbitzu Azkarra

urteurrenak

Euskáraren hitzarmena

■ 57. zenb.

(1990-03-23)

1990eko martxoaren 27an, Euskararen Erabilera Sustatzeko Hitzarmena sinatu zuten Monterronen. Arrasateko Udalez gain, beste 32 elkartek ere onespena eman zuten. Euskararen inguruko makina bat pertsona ezagun egon zen ekitaldian: besteak beste, Mari Carmen Garmendia (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkaria), Jean Haritxelhar (euskaltzainburua), inguruko herrietako Kultura eta Euskara batzordeburuak, alkateak, eta abar. Elkarte horiek euren arteko harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu zuten.

Besaideren itxuraldaketa

■ 57. zenb.

(1990-03-23)

BESAIDEALDEA EGOKITZEA



Besaideko tontorren azken urteetan landatutako pinuak zirela eta, hango bista ederrak pikutara joan ziren. Hori konpontzeko, proiektu bat abiarazi zuten: tontorraren inguruko 13 hektarea erostea, garbitu eta txukuntzeko asmoarekin, eta Joshim Ogata eskultore japoniarraren lana ipintzea. Arrasateko Besaide, Aramaioko Orixol eta Elorrioko Erdella Mendizale elkarteek bultzatu zuten ekimena.

besteek esana

« Lan munduak eskatzen dituen lanak ez ikastea aitzakia hutsa da. Izan ere, argudio hori funtsik gabe uzten duten adibideak ere badira. Arrasaten, esaterako, emakume asko daude LHko ikasketak egiten ari direnak, eta haien notak oso onak izaten dira, baina gero ez dira sartzen lan munduan. Beraz, ikasketa hobeak izan arren, horrek ez dauka eraginik lanean: emakumeentzat dira lan kaskarrenak, gutxien baloratuak daudenak eta soldata eskasena ».

Errasti anaiak istripuz hil

■ 57. zenb.

(1990-3-23)

1990eko martxoaren 17a egun beltza izan zen arrasatearrondako. Zapatu hartan, Bittor, Juan Jose eta Pedro Errasti anaiak auto istripuz hil ziren Brionesen. 32, 36 eta 35 urteko anaiok Najerarantz zihoazen, hantxe lehengusu baten ezteiak ospatzeko, baina bidean istripu larria izan zuten.

Begoña Diez de Uzurrun

ELAko emakumeen
arloko arduraduna

Euskaldunon Egunkaria

(2001eko martxoak 8)



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89

E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzasu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gáinzarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemallea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1/124/86. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: K. Corbella - ZazpiKa.



Arrasateko Udaleren laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

aurkibidea

- Lehen begiratua 3
- Asteko hitzorduak 4
- Inkesta 5
- Astearren errepassoa. 6
- Orain eta hemen. 7/8
- Txutxumutxuak 9/10
- Asteko gaia
Clara Ezkurra 12/13
- Kulturaren txokoa 14/16
- Kirolak jokoan. . . 17/18/19
- Zaldibar areto futbola . . . 20
- Uhinetan barrena 21
- Foto zaharra 22



ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualarria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
• Okorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoendako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretratuaren egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Igandea	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta larunbata	Igandea
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

autobusa Bilbora

Martxoaren 17an, Haikari elkartasuna adierazteko manifestazioa egingo da Bilbon. Autobusak antolatu dira Arrasateetik joateko.

Autobusa, Garibaitik aterako da 15:30ean. Txartelak Irati tabernan daude salgai.

barrakak doan

Martxoaren 16an, Jose Luis Sanz-ek Biteri etorbidean duen zaldiko-maldikoa doan izan-

go da 17:00etatik 20:00etara, Udalaren ekimenez.

antzerkia lamain

Kontzeziño kaleko lamai kafetegian De Trius Corazón antzerkia eskainiko da, mar-

txoaren 16an, gauerdian.

diru bilketa

Korrikarendako diru bilketa egingo da martxoaren 17an, goizez eta arratsaldez. Gaz-

te Txokoetako gazteek eta txistulariek ere parte hartuko dute.

1940ko emakumeen bilera

1940an jaiotako emakumeek ospakizuna egingo dute hilaren 31n. Izenematea mar-

txoaren 26a baino lehen egin behar da, Batzokian.

udalpeko bazkideei deia

Udalpe Elkarteak omenaldia egingo die, martxoaren 24an, Jose Rodriguez eta Miguel Lazpiurri. Bazkide guztiak gonbidatuta dau-

de, eta izena eman beharko dute martxoaren 18a baino lehen.

mendi irteera

Martxoaren 25ean, Iturriotz, Pagoeta, Inda-mendi eta Zarautzera irteera egingo du Besai-

dek. Izenematea hilaren 19tik 21era bitartean egin beharko da.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 16
• Amezua, Santa Marina

Zapatua, 17
• Zabala, Zarugalde

Domeka, 18
• Ruiz, Magdalena

Astelehena, 19
• Morales, Araba

Martitzena, 20
• Azkoaga, Ferrerías

Eguaztena, 21
• Azkoaga, Iturriotz

Eguena, 22
• Corcuera, Aranbarri

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 24 58


Eramango zenuke txakurra Pipi-Canera?

Arrasateko Udala txakurrendako komunak jartzen ari da



Anartz Blazkez
(21 urte)
Langilea

Bai, oso ideia ona da.



Markel Biguri
(15 urte)
Ikaslea

Ez, nire txakurra ez nuke horrelako batera eramango. Ez da ideia ona.



Aitziber Sanchez
(12 urte)
Ikaslea

Bai, eramango nuke.



Jaione Ibaibarriaga
(30 urte)
Irakaslea

Bai, eramango nuke, baina horretara gu ere hezitu egin behar gara.



Maria Espejo
(69 urte)
Etxekoandrea

Bai, jakina; kalean egitea baino, hobe da Pipi-Canetara eramatea.



Benita Cruz
(66 urte)
Etxekoandrea

Txakurrak lotuta eraman beharko genituzke, eta ez utzi beharrak kalean egiten. Hortaz, ideia ona da.



Jon Lizarralde
(14 urte)
Ikaslea

Bai, ideia ekologikoa da.



Segundo Figueredo
(76 urte)
Erretiratua

Oso ondo iruditzen zait, betiere, txakurrak bertara eramaten badituzte. Bestela, ez du ezertarako balio.

M **ARENAZA**

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

USTEAK USTE

Transizio garaia?

Bitxia da Arrasate Pressen iritzi artikulu edo zutabeak idaztera bueltatzea, kuriosoa oso, hainbat urtetan aritu ondoren. Lehengo ia kasualitatez. Gero epe jakinetan eta irudi gabe. Marrazkiekin ondoren, eta azkenik, argazki eta guzti, gelditzen zitzaigun anonimato apurra desagertariz... atsedena hartzea erabaki arte.

Iritzi edo kontakizun errutinario, partzial eta funts gutxiko hauek plazaratzeko txokoa aldatu bazait ere, gauzak ez omen dira gehiegia aldatu; edo agian bai? Egia esan, gure etxeetan oso aspaldidanik astero jaso dugun aldizkari hau, arlo honetan nolabaiteko aitzindari sendoa dena, eraldaketa prozesu baten baitan dago azkenaldian. Presentzia fisikoa moldatuz baina bere ezaugarriak eutsiz, jatorri izendapen bilakatzen ari den bailara honetako astekarian barneratzea doa, globalizazioaren aurrean antzeko gailuen aldeko apustua eginez. Mende berriak pentsakera eta egitasmoak ekarri dituzte herrietaraino, guregan eragina izango dutenak.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Gaitzespen bilkurak

ETAk ertzain bat hil zuela eta, egubakoitzean kale bilkura isilak egin zituzten herrian. Udaletxe aurrean eguerdian elkartzeko dei egin zuen Ibarretxe lehendakariak, eta jende dezente elkartu zen. Ordu laurdenez protesta isila egin ondoren amaitu zen bilkura. Ostera, iluntzean, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta, beste kale bilkura isil bat egin zen, Lau Kalen.

■ Greba eta mobilizazioak

Haika taldeak deituta, borroka eguna izan zen egubakoitzean. Eguerdian eta iluntzean kale agerraldiak egin zituzten, eta antolatzaileen esanetan, 500 bat lagun elkartu ziren. Goiz partean, gainera, zenbait ikastetxek greba egin zuten. Kale agerraldiak baimenduta egon

arren, Ertzaintza kalera irten zen eta tentsio uneak bizi izan ziren, baina ez zen isturirik egon.

■ MCC hizpide

Estatu Batuetako eta Holandako bi irakaslek MCCren gaineko liburu bat prestatzen dihardute. Duela 20 urte argitaratutako "Mondragón, un análisis económico" liburua bigarren edizioa izango da, eta liburu horretan agertzen den informazioa eguneratuko dute, besteak beste. Hala, MCCren lan egiteko modua azaleratu nahi dute, gero beste zenbait lan-tegitan aplikatu ahal izateko edo, gutxienez, erreferentzia moduan erabiltzeko.

■ Kontzertua

Pasa den egubakoitzean, uste baino jende gutxiago joan zen Ekuatore Gineako

Hijas del Sol taldearen kontzertua ikustera: 250 lagun. Edozlean ere, joan zirenak primeran ibili ziren, sekulako giroa sortu zen eta ikusleen eta musikariren artean.

Hijas del Sol taldearekin batera Galiziako Faltriqueira taldea eta Euskal Herriko Txanbela ere izan ziren. Korrika kulturalaren barruan egin zuten kontzertua.


■ Istripua

Astelehenean, istripua izan zen Mondragoeko irteeran. Kamioi batek Peugeot markako auto bat kolpatu zuen. Ondorioz, 33 urteko I.U.A. gazte bergararra eskualdeko ospitalera eraman zuten.

Istripuak eraginda, auto ilara luzeak sortu ziren, Bergarako saihebidetara iritsi ziren; izan ere, errepidearen alde bat moztuta egon zen, autoa erretiratu arte.

■ Fagor Elektratresnak

Madrilgo Expo-ocio 2001 azokan izango da Fagor Elektratresnak enpresa. Datorren zapatuan irekiko da azoka, eta astebezez bisitatu ahal izango da. Dagoeneko, Fagorrek eraman ditu Madrileran han erakutsi beharreko produktuak. Hain justu, etxetresna elektronikoetan punta-puntako prestakuntzak dituzten aparatuak aurkeztuko dituzte. Guztira, hiru erakustoki izango ditu Fagorrek Madrilan.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

EHk, EAk eta EBk Loitiri egindako erasoak errefusatu zuten

Udaleko Gobernu Batzordeak osoko bilkura berezia egin zuten Jose Mari Loitiri egindako erasoak zela-eta. Pasa den eguenean izan zen. Bi mozio aurkeztu zituzten, bat Euskal Herritarrok alderdiak eta beste Eusko Alkartasunak. Bi mozioak onartu ziren, gainera. Bata EHren aldeko botoekin eta EA eta EBren abstentzioarekin. Bestea, EAren eta EBren botoekin eta EHren abstentzioarekin. Izan ere, beste hiru alderdiek, EAJK, PSE-EEk eta PPK aretoa utzi zuten eta ez zuten bozketan parte hartu. Jose Mari Loitik Arrasate Irratiari adierazi zionez, presaka deitu zuten alkateak bilkura, eta ez zuten mozioak aztertu edo egiteko aukerarik izan.

INDARKERIA GORAKA

Bi mozioetan, gure herriko gatazka politikoaren aurrean



Jose Mari Loiti

kezka azaldu zuten. Indarkeria goraka doala ere nabarmendu zuten. Eta ondoren, alderdi bakoitzak bere jarrera azaldu zuten.

EAk eta EBk, lau puntutan, Loitiri egindako erasoak errefusatu eta elkartasuna adierazi zioten. Horrez gain, gatazkaren konponbidea lortzeko alderdien arteko elkarrizketa

dela bidea nabarmendu zuten. EHk ere errefusatu zuten gertaera, baita azken egunetan gertatzen ari diren neurritz kanpoko ekintza judizial eta politzialak.

ZUTIK

Debagoieneko Zutik alderdiak bere aldetik, beste idatzi bat kaleratu du aste honetan.

Zutik-en ustez, Loitiri egindako erasoak ez da zilegizkoak eta politikoki ere ez da zuzena. Era berean nabarmendu du, "estatua eta bere politika direla Euskal Herriko egoeraren lehen erantzuleak". Horrez gain, besteak beste, zera gaineratu dute: "ezin dugu estatuak erabiltzen dituen metodo antzerakoak erabili: inposaketa, jipoiak, errepresioa... Ez da zilegizkoak norberaren pentsakera eta proiektu politikoa defendatzea besteak beste indarrez zigortuz eta ixilaraziz".

Zahartzarora hizpide

Osasun Pastoralaren esku-tik, Osasun Pastoralaren Astea antolatuta dute seigarren aldiz. Datorren martxoaren 20an hasi eta bi egun iraungo du. Bitarte horretan, zahartzen ikastea helburu moduan hartuta, hiru hitzaldi izango dira: *Depresioa: tristuraren gaitxotasuna*, *Behar bezalako zahartzarora eta Zahartzarora eta barne-hazkuntza*. Hitzaldi guztiak San Andres Parrokiaren lokaletan izango dira, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Atxilotutako gaztea aske

Egubakoitz goizean askatu zuten pasa den eguenean Mondragoan atxilotutako adin txikikoa. Haika taldeak 15 gazteren atxiloteta salatzean antolatutako manifestazioaren ostean egondako istiluetan atxilotu zuten Ertzaintzak gaztea. Gerora, Donostiara eramane zuten eta eguenean Donostiako Auzitegi Probintzian deklaratu zuten. Epai-leak aske utzi zuten Mondragoeko gaztea kargu barik.

Lastertasuna moteltzen

Herriko Udalak lastertasuna moteltzeko beste bi gailu edo banda jartzea erabaki du. Musakolan jarriko dituzte oraingoan, San Isidro eliza eta auzoko erretiratuen etxearen artean, semaforo inguruan.

ERAGINKORRAK

Itxura denez, askotan jendeak tarte hori aprobetxatzen du errepidea gurutzatzeko, eta horrela arriskua sortzen dute. Banda horiek bestelako gunetan eraginkorrak direla ikusita, Musakolan ere horrelakoak ipintzea erabaki du udalak.

Euskarari erasoak



Azkenaldian euskararen kontra erasoak izan dira herrian. Adibidez, errepideetako bide seinaleetan euskarazko erro-tuloak ezabatu eta gaztelera-zkoak nabarmendu dituzte.

Horren adibidea da Bergara bidean dagoen seinalean egin dutena, edo Kanpantzar gainean edo Eskualde Ospitale-tik saihesbiderako irteeran dau-den seinaleekin egin dutena.

Saria Danobat enpresarendako

MCCren barruan dagoen Elgoibarko Danobat enpresak Estatu Batuetako "General Electric" enpresaren saria irabazi du. Hornitzaile bikaina da Danobat Ipar Amerikako industria taldearendako eta horrexegatik eman diote saria. Orain arte, estatu espainiarrean inork ez du jaso sari hau.

Kanpalekua atzeratuta

Meatzerrekan zantxan proiektu egin gura ditu Arrasateko Udalak: besteak beste, nomaden kanpalekua. Dena dela, momentuz, proiektu hori atzeratu egingo da. Izan ere, Meatzerreka auzoa inguru industrial da, eta kanpalekua erai-ki ahal izateko, lur horien kalifikazioa aldatu beharra dago, ingurua gune urbanistiko bihurtzeko.

Meatzerrekatik pasatzen den ibaiari irtenbide egokia bat eman behar zaiola uste du Gipuzkoako diputazioak, eta horren ondorioz, udalaren proiektua ez onartzea erabaki du. Hori dela eta, Arrasateko Udalak helegitea aurkeztuko du, eta Meatzerrekako proiektu atzeratu egingo da.

Haika: "Ozen entzungo gaituzte"



Mondragoeko Haika taldeak salatu egin du Garzonek Haikaren kontra egindako polizia operazioa. Eguaztenean, prentsaurrekoa egin zuten udal-ean. Haikarekin batera, AAB-Ben EHren eta LAB sindikatuaren ordezkariak ere bazeuden, babesa ematen. "PPk eta PSOEek Euskal Herriaren aurka daramaten gerra estrategia zoroaren urrats bat gehiago" dela adierazi zuten. Horrez


gain, EAJren jarrera ere salatu zuten, "biztanle independentisten aurkako eraso bortitz horren aurrean, eskuak garbitzen saiatzen dira, diskurtso bikoitza garatuz". Edozelan ere, aurrera segitzeko asmo sendoa dutela ere jakinarazi zuten: "Kalera irtengo gara, eta ozen entzungo gaituzte". Hala, bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko dei egin du Haikak.

Osasunaren gain berbetan

Osasuna hizpide hartuta, hiru hitzaldi antolatu ditu Eroskik. Monterronen izango dira, martxoaren 20, 21 eta 22an, 16:30etatik aurrera. Botikak, zahartzaro osasuntsua eta gaitotasun arruntak eta dieta izango dira hizpide; hiru sendagile etorriko dira berba egitera.

Zabortegia berreskuratzen


AKEIko erraustegia berreskuratzeke lanak aurten hasiko dituzte. Jaurlaritzak abian jarritako programaren barruan dago zenbait zabortegi berreskuratzea. 108 kokagune berreskuratuko dituzte, 89 zabortegi eta 19 hondakin industrial.



zure web berria

www.loramendikirolak.com

ausartu eta sartu!



IKASLEAK ARKON

Aspaldian ez bezala, joan den astean, ikastetxe bateko lagunak izan genituen bisitan: San Andres herri eskolako 6. mailakoak, hain zuzen ere. Arrasate Press zelan egiten den ikusi, GOITBko estudioak miatu eta Arrasate Irratian berba eta guzti egin zuten.

ALEX AZKARATE

Begararra da, 32 urte ditu eta Arrasate Pressko maketzaile berria da. Lan horretan esperientzia luzea du: Berrigarren eta EHNE sindikatuaren aldizkarian egin du lan. Ongi etorri!



1934KO KINTOAK

1934an jaiotako lagun piloak elkartu zen joan den domekan: Gasteizen, Irunen, Elorrioren eta beste herri batzuetan bizi diren arrasatearrak ere etorri ziren. Dantza egiteko orduan, kinto hauek oso-oso biziak ei dira.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

IRRIST ETA IRRI

Txatxilipurdiko lagunak Gasteizen izan ziren orain bi zapatu. Izotz gaineko patinajea gura bezain beste praktikatu zuten, eta neka-neka eginda, baina gustura asko itzuli ziren etxera.



INSTITUTUKOAK, ELURRETAN

Institutuko hainbat ikasle eta irakasle Aste Txuri Erdia izan zuten otsailaren 26tik 28ra bitartean. Bareges-en eman zituzten hiru egun horiek, eskiatzen, eta aratusteak zirela-eta, mozorroturik ere ibili ziren.

TOLDOS LECE C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

BITTORI ERRETEGIA


Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

IGR DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminioko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



Zure aurrezkiekin errentagarritasun handienera nabiga dezazun.

Super Net Kontua orain eskuragarri. Lehen urratsa eman dugu. Datuek izugarriko arrakasta erakusten dute. 2000ko ekainetik hona, 10.000 pertsona baino gehiago sartu da banku elektronikoan Super Net Kontuaren bidez. Zure moduko pertsonak dira. Batzuk adituak badira ere, gehienek ez dute ezta oinarrizko ezagupenik ere. Lehenengo, euren aurrezkiak jarri zituzten. Orain, euren inbertsioa banatu egin dute, kontuko saldoak fondoetara, baloreetara... mugituz. Erosotasun osoz mugitu ere: ordenagailutik. Eta komisiarik ordaindu gabe. Gainera, beste aukera batzuk bilatzen dituzten artean, pezeta bakoitzari, gutxienez, %3ko UTBko etekina ateratzen diote. Oraindik erabakia hartu ezinik bazabiltza, Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletara joan eta pausoa egitera animatzen zaitugu. Zuk ere jasoko duzu behar duzun laguntza.

EZAUGARRI NAGUSIAK

- Dirua askatasun osoz eskuratzeko aukera ematen du
- Transferentziak eta intsuldaketak egin ditzakezu beste kotu batzuetara.
- Kontutik baloreen salerosketara, inbertsio fondoetara... jo daiteke zuzen-zuzenean.

*ZENBATEKOAREN ARABERAKO ORDAINKETA LEHEN PEZETATIK HASITA

- 0tik 2.999.999 pezetara %3ko UTB (% 2,960ko nominala).
- 3tik 10 milioi pezetara %4ko UTB (3,928ko nominala)
- Mantentze komisiarik gabe.
- Interesak egunero kalkulatu.
- Interesak hileroko ordainduta.

BALDINTZAK

- Ez du helbideratzerik onartzen.
- Gehienez, 10.000.000 pezetako zenbatekoa.
- Kontua sukurtsaletan irekita.
- Kontu horrek pertsona fisikoak bakarrik onartzen ditu.
- Bezero bakoitzeko kontu bakarra ireki ahal izango da.



Kablea luzatzen dizugu Internet bidezko Bankan sartzeko.

www.cajalaboral.es / 901 333 444

«Aita Santuak Clara esaterakoan ng

Joan zen domekatik, Arrasatek lehenengo emakumezko dohatsua du: Clara Ezkurra Urrutia. Herriko bigarren dohatsua da, lehenengoa Jose Maria Bengoa izanik. Joan Paulo II. Aita Santuak 25.000 lagunengoa aurrean ospatutako zeremonia hunkigarrian aitortu zuen dohatsu Arrasateko alaba hau, beste 232 martirirekin batera. Mondragoen Clarak dituen oinordekoek pozarren hartu dute gertakizun hau: espreski dohatsu aitortze zeremonian egoteko joan ziren Erromaraino, Vaticano Hiriraino, eta astelehenean itzuli ziren, han lau egun eman ondoren. Askok lehenengo aldiz izango zuten Clara Ezkurraren izenaren eta, batik bat, ekintzen berri.

Clara Ezkurra Urrutia 1896ko abuztuaren 17an jaio zen, Uribarriko Erguin baserrian. Sei anai-arrebatak gazteena zen. Txiki-txikitandik erakutsi zuen Jain-

koarenganako grina eta erlijioarekiko maitasuna. Katekista lanetan jardun zuen Clararak; batik bat, Lehenengo Jaurtzea egiteko prestatzen zituen umeak.

Hasiera batean, Mesede-

takoaren ordenekoa izatea gura zuen Clararak; hala ere, azkenean karitatearen karmelita egin zen. Gasteizen egin zen nobizia, 1920ko martxoaren 14an. Ezkongaiaren zuzenbidea, eta hura utzi beharrik ekarri zizkion zalantza gehienak.

Bokazio handikoa izan arren, erabaki hura hartzea ez zen gauza erraza izan Clara Ezkurrarendako, eta ez zitzaizkion garai leunegiak parean tokatuko. Gasteiztik Valentziaraino bidali zuten, eta hango Miserikordiaren Etxea zelako komentuan bizi izan zen harez geroztik. Lehenengo jarduera moduan, umeak eta nagusiak zaintzea egokituko

zitzaien. Lan horri aurre egiteko, goizero-goizero hiruretan jaikitzen zen Clara; baina, berez zuen gozotasuna ez zuen inoiz ere galdu.

Lan gogorraren aurrean kokiltzen ez zen horietakoa zen moja arrasatearra. "Lan egin, gaixotu arte", zen bere leloa. Baina Espainiako Gerra piztu zen, eta erlijiosoek, besteak beste, erasoak jasan zituzten. Horien artean, Miserikordiaren Etxea ezustean erasotu zuten, eta moja guztiak bahitu eta fusilatu egin zituzten, 1936ko azaroaren 24an.

PERTSONA ONA

Clara Ezkurrak senitarteko



Erguin baserrian jaio zen Clara Ezkurra.

«negarrez hasi ginen»

asko ditu Arrasaten eta Aretxabaletan, eta horietatik ordezkari zabalak izan da Erroman: 48 lagun guztira, hainbat taldetan banatuta, baina gero elkarrekin ibili zirenak. Esperientzia zelakoa izan den? «Ezin hobea», dio Marilu Baltzategik. Mariluren ama, Justa Ezkurra, Clararen iloba da. Justak 87 urte ditu, eta ondo gogoan du Clara izeba; baina ezin izan da zeremoniara bertaratu.

Hala ere, Justak izeba izan zenarekin bizi izandakoak sarritan kontatu izan dizkie seme-alabei, eta hauek ere, nahiz eta Clara ezagutu ez, oso gertuko sentitzen dute: «Amak gehien errepikatzen duena zera da: hura, pertsona ona zela, bai, ona benetan», esan digu Mariluk.

Dohatsu aitortze eguna joan zen domeka izan zen, martxoak 11, eta ordura arte Erroman ikusitakoak, itzalpean geratu dira egun hartakoaren ondoan: «Eguraldi eder-rra egiten zuten, eta San Pedro plaza bete-betea zegoen. Valentziatik etorriak ziren gehienak, baina baita Kataluniatik, Zaragozatik. Aita Santuak lau edo bost erlijioso aipatu zituen, baina guztira, 233 lagun aitortu zituen dohatsu. Horien artean, sei euskaldun zeuden: bi gasteiztar, bilbotar bat, muxikar bat, azpeitiar bat, ataundar bat eta Clara, arrasatearra. Aita Santuak berak esan zuten milurteko lehenengo dohatsuak zirela. Baina... zenbat jende, zenbat moja, zenbat pankarta! Moja mordoa zegoen euren pankartekin eta zelako hunkipena haiena! Hura ikustekoa zen, bai horixe!», kontatu digute han izandako arrasatearrek.

ZIRRARAGARRIA

Mariluren esanetan, telebistan ikusten dena eta bertan izanda sentitzen direnek ez dute antzik ere. Norberak erlijioa zelan eta zenbateraino sentitzen duen gutxienekoa ei da horrelako kasu batean: San Pedro plaza, jendez gainezka eta horrelako zeremonia baten, zirrara bizia sortzen duela onartu du Arrasateko taldeak: «Aita Santuak banan-banan izendatu zituen dohatsu berriak. Halako batean, Valentziako karmelitak aipatu zituen, eta ondoren, zera esan zuten: "Clara Ezkurra dohatsua, otoi gure alde". Eta orduan, arrasatear guztiak, zirrara batean, negarrez hasi ginen», esan digu Mariluk. Eta kontuan izan beharreko zerbait gaineratu du: «Joan Paulo II.ak



Erdikoa da Clara.

Apirilaren 21ean, Uribarriko Parrokiak -auzo horretakoa baitzen Clara Ezkurra- ospakizuna egingo du

esan zuten, taldeko beatifikazioa izan arren, bakoitza zela dohatsu, banan-banan, eta guk, herrian, dohatsu arrasatear bat dugula».

PROZESU LUZEA

Mondragoen beste dohatsu bat gehiago izateko, eta herriko dohatsuen artean lehenengo emakumezkoa, urte asko pasatu behar izan dira. Clara 1936an hil zuten, eta beatifikazio prozesua 1952an hasi zuten Valentziako gotzaindegiak. Baina luzeagoak ere izan dira: batzuetan, prozesu horiek

ehun urte edo gehiago irauten dute.

Norbait dohatsu edo beato aitortzeko, bateren batek prozesua ireki behar du. Normalean, pertsona horren familia erlijiosoak eragiten du prozesua, eta bere elizbarruti barruan bizi izan zen lekuko, gotzaiaren bidez egiten diote eskabide formalari Elizari. Idatzia aurkeztu behar dute, eta bertan pertsona horren gaineko nondik-norako guztiak zehaztasun osoz aurkeztu. Ondoren, Erromara bideratzen dute eskakizuna, eta han,

hainbat proba pasatu behar ditu eskakizunak. «Beatifikazio kausa bat zabaltzen da, eta egiatan, epaiketa antzekoa da; badago "deabruaren abokatu"ren papera egiten duen alde bat, eta horrek dohatsu izateko proposatutako pertsonaren alde ezkor guztiak nabarmendu behar ditu. Pertsona horren inguruko testimonio eta iritzi ugari jasotzen dira, eta azkenean, erabakia hartzen da», azaldu digu Uribarriko parrokoak.

Herrian dohatsu berria dugula ospatzeko, apirilaren 21ean, zapatua, Uribarriko Parrokiak -auzo horretakoa baitzen Clara Ezkurra- ospakizuna egingo du: Gipuzkoako gotzaina etorriko da, eta dohatsua biritza eta ekin-tzak gogoratuko dituzte. ■

Leire Kortabarria

JESUS LOPEZ (BIOLOGOA)

«Euskal Herriko zuhaitz moten iraupena ez dago arriskuan»

Gustukoak ditu zuhaitzak, eta, halako baten, erakusketa antolatzea bururatu zitzaion Jesus Lopez ibartarrari. Pentsatu eta egin: bere kabuz bildu zituen adarrak, hostoak eta loreak, eta hilaren 19ra arte, Monterronen ikusi ahal izango dugu Gipuzkoako zuhaitzen eta zuhaixken herbarioa. Bitxikeriak eta datuak ere, gura beste.

— Luzaroan, insignis pinua izan da nagusi Gipuzkoan: azaleraren %46 hartzen du.


— Bai. XIX. mendean iritsi zen insignis pinua Euskal Herrira. Ondo eta azkar hazten zen, eta etekina ematen zuen oso epe laburrera. Gainera, Gipuzkoan eta Bizkaian lurraren jabegoa pribatua da, eta horrek ere izan du zerikusirik. Orain, ordea, badirudi hori gutxitu egin dela, eta pinua gero eta gutxiago ordaintzen dela. Dena dela, horrek asko aldatu du Euskal Herriko mendien itxura.

— Arriskuan ote dago, hortaz, bertako zuhaitzen bizi iraupena?

— Ez dut uste. Nire iritziz, gizadia egunen baten desagertzen bada lurretik, landareek bertan segituko dute; egokitu egingo dira, baina aurrera jarraituko dute. Hortaz, gu hemen gauden artean, euskal landaretza ez da larregi aldatuko. Azken urteotan, hemengo zuhaitzak -haritza, pagoa, ametza, urritza...- berreskuratzeko lan handia egin da.

— Izurriteek ere aldatuko zuten Euskal Herriko mendien itxura.

— Bai, eta zumarra da adibide garbiena. XIX. mendean oso izurri kaltegarria sortu zen, XX. mende erdialdean European hedatu zen, eta



Euskal Herriko zumar gehienak desagertu egin ziren. Zumarrek badute berriro ateratzeko gaitasuna, eta zuhaixka moduan diraute, baina zuhaitz handiak, ordea, oso gutxi daude.

— Zuhaitzak ezagutzea falta zaigu?

— Garai baten, zuhaitzak eta landareak hobeto ezagutzen ziren, eta gehiago erabiltzen ziren, medikuntzarako eta abar. Gero, jendea ezaugarri horietaz ahazten joan zen, baina interesa berpiztu egin da eta geroago eta indar handiagoa du, adibidez, medikuntza naturistak. Erakusketan, informazioa eta bitxikeria horiek bildu ditut, jendeari jakinarazteko.

— Kutsadurari aurre egiteko balio dute zuhaitzek?

— Esaten da, bai, hirien birika funtzioa egiten dutela. Espezie askok kutsadura ondo jasaten dute: ginkgoak, adibidez, ezagutzen den zuhaitz motarik zaharrena. Gainera, lorategietan temperatura freskatu egiten dute. Baina, kutsadura saihesteko balio dutela esatea... ez dakit zein neurriraino den hori egia.

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• “Euskadiko Gazteak Lan-kidetzan” programa. Hirugarren munduko lurraldeetan, udan lankidetzeta programetan parte hartzeko aukera. 20-31 urte arteko gazteei zuzendutako deialdia. Epea: martxoak 23.

• “Egonaldiak Familia Euskaldunetan” programa. Udako hila-bezetan euskara ikasleak hartzeko familiendako dirulaguntzak. Epea: martxoak 24.

• Estatuko Ministeritzaren eskutik, udan ingeles teknikoa ikasteko dirulaguntzak, administrari, hosteleritza eta turismoa, komertzioa eta marketing alorreko LH ikasketak burutuak dituztenentzat. Epea: martxoak 30.

■ LANA

• Gasteizko Udalean 400 lanpostutik gora betetzeko deialdia. Epea: martxoak 22.

• Altsasu, Olazti eta Zior-diako Mankomunitaterako gizarte langilea behar da. Epea: martxoak 22.

• Arrasateko Udalerako prebentzio, gizareratze eta dro-gomenpeketasun teknikaria behar da. Epea: martxoak 29.

■ BRIGADAK

• “José Martí” Euskadi-Cuba Elkarrekin, urtero lez, Kuban lan brigadak antolatu ditu, uztailean zehar lur landetan lan egiteko.

■ TXARTELAK

• Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Azken urteotan, bertako zuhaitzak -haritza, pagoa, ametza, urritza...- berreskuratzeko lan handia egin da”

GRUPO

RKUZ

1950-2001





ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert

RKUZ
SUKALDE INTEGRALA


Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

Antzerkia, Chernobylgo umeei laguntzeko



Un follón de testamento antzetzuko du Txalo talde zarauztarrak

Bihar, martxoak 17, *Un follón de testamento* antzetzilana izango da Amaia antzokian, 22:00etan. Ekintza horren atzean bada laguntzarako egitasmo bat: Chernobylen Lagunak elkarteak antolatu du, eta dirua biltzea du helburu, Ukrainako hainbat ume Gipuzkoara ekartzeko. Sarrerak 800 pezetan salduko dira, eta bildutako dirua egitasmo hori bideratzeko izango da. Gainera, Udalak doan utziko die antzokiaren erabilpena.

34 UME

Chernobylen Lagunak elkarteak Ukrainatik umeak ekartzeko dituzten familiak biltzen ditu. Familiak euren sakelatik ordaindu behar dituzte umeak ekartzeko suposatzen dituen gastu guztiak. «Bakarrik honeraino ekartzea 125.000 pezeta inguru kostatzen da, eta urterik urte garestitzen doa. Dena den, dirulaguntza honekin, ea aurten 34 ume ekartzea lortzen dugun», diote elkarte-ko arduradunek.

BIGARRENEZ

Un follón de testamento komedia Txalo antzerki talde zarauztarrak eskainiko digu. Txalok sarritan egiten du lankidetzaren gobernuz kanpoko erakundeekin: iaz eskaini zuen aurrenekoz *Un follón de testamento* Arrasaten, eta orduan, Mozambikeri laguntzeko izan zen dirua. Txalo taldekoek Euskal Herriko hainbat lekutara eraman dute lan dibertigarri hori, eta arrakasta handiarekin gainera.

Zaitegi eta Altube, Bidegileak bilduman

Euskalgintzan aitzindari izan diren hamasei gizon-emakumeren inguruko lau liburu kaleratu ditu Eusko Jaurlaritzak, *Bidegileak* izenburupean. Horien artean, bi arrasatear daude: Seber Altube eta Jokin Zaitegi.

Euskal kulturari laguntzeagatik eta euskara, jakintzarako hizkuntza moduan erabiltzeko lan egiteagatik aukeratu dituzte bi arrasatearrak.



Jokin Zaitegi

GAZTEENDAKO

Bildumaren helburua da euskaltzale horiek gazteengana hurbiltzea; baina "*Bidegileak*" eskola-umeei, euskaltegiatarako ikasleei eta baita euskaltzalearen inguruko informazioa gura dutenei ere bada gozuzenduta. Seber Altuberen gaineko liburuak Jose Maria Velez de Mendizabal adituak idatzi du, eta Jokin Zaitegiren gainekoa, Pako Sudupek.

Uztaila Txangoan, Txatxilipurdirekin



Gertu dago Txatxilipurdi elkartearen Udaleku kanpaina, eta jadanik izena eman dezakezue, martxoaren 30a arte. Epe bera izango dute begirale izan gura dutenek.

Aurten, berritasunak ditu Udaleku egitasmoak: Uztaila Txangoan izeneko ekintza. 10 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta uztailako martitzen eta eguenero irteera bat egitean datza: zortzi txango, hortaz. Zaldi-heztegira, piraguan ibiltzera, mendira... joango dira ume horiek.

ADIN GUZTIETARAKO

Bestela, Txatxilipurdiren eskaintzak ohiko aukerak dakartza aurten ere. Batetik, udaleku itxiak izango dira: aurten, Asturiasen, Orion eta Beintzan antolatu dituzte. 10 eguneko egonaldia izango dira. Bi eta hiru urtekoek Bilin-Bolonka jolas programan esku hartzeko aukera izango dute, goizez; hiru eta sei urte artekoek Babylekuetan gozatu ahal izango dute, goizez edo arratsaldean, aukeran. Azkenik, seitik hamar urte bitartekoek herrian hainbat ekintza egingo dituzte egunez, eta gaua inguruko egoitzaren baten igaroko dute.

Txatxilipurdik ez ditu onartuko epez kanpo egindako izen emateak.



Hamar urte,
hamaika kirol!

AKP, hamar urteak ospatzen

Arrasate Kirol Proiektuaren hamargarren urteurrena dela eta, hainbat ospakizun prestatzen dabilta. Urteurren horri indarra emateko asmoz, hainbat kiroletako zenbait talde garrantzitsu Arrasatera ekarriko dituzte. Momentuz, partidu bat lotuta badago ere, beste talde batzuekin harremanetan dira.

TAU CERAMICA BASKONIA CAFES AITONA ASKATUAK

Martxoak 20, martitzena
Iturripeko kiroldegian, 17,30ean.

TALDE PROFESIONALEKIN HARREMANETAN

- Realarekin harremanetan gaude lagunarteko partidu bat jokatzeko
- Saskibaloiko lehen mailako bi neska taldeekin harremanetan gaude lagunarteko partida bat antolatzeko.
- Elgorriaga eskubaloi taldeak ere hitza eman du, bere egutegia libratzen denean, entrenamendu bat egitera hurbilduko dela.
- Udal aldetik ere eskuz banakako txapelketako partida bat antolatuko da Arrasate Kirol Proiektuaren X. urteurrenaren omenez

Ibilaldi neurtua

Oraingo asteburuan, urteroko mendi irteera berezia egin da: Ibilaldi neurtua. Aurren, Oñatin egin da ibilaldi hori.

Jakina da Arrasate Kirol Proiektuak mendi irteera antolatzen duela hilean behin, eta inguruko bazterrak bisitatzera abiatzen direla. Honakoan, ordea, Debagoieneko beste ikastetxeekin batera, ibilaldi berezi honetan parte hartu dute.

Ibilaldi neurtua urtean behin egiten da, eta Gipuzkoako eskualde bakoitzak bertako ikasle guztiendako antolatzen du. Antolatuzaileek hainbat kontrol postu jarri dituzte, ikasleek bosteko taldeetan pasa behar dituztenak. Eguraldia lagun, jai giroan ospatutako



ibilaldi honek 700 bat pertsona bildu zituen.

Amaitzerakoan, parte hartzaile

guztiei diploma oroigarri bat ematen diete, merezitako hamaiketakoarekin batera.

Kirol instalazioen zozketa



Uarkape, Musakola eta Iturripeko kirol instalazioetako pilotalekuak eta futbol, tenis eta squash-eko kantxak alokatzeko urteroko zozketa egingo da datorren asteko eguaztenean, hilak 21, 18:00etatik aurrera. Batzarrak Zigorrolako kiroldegiko bulegoetan izango dira.

Pilota

Deba Arroako txapelketak jokatu ziren Uarkapen asteazkenean, eta kadeetan arrasatearrak jaun eta jabe izan ziren. Gaur, ostirala, bestalde, beste partidu batzuk jokatuko dira.

Domekan hasten da arrantza denboraldia


Arrantzan egiteko amorratzen egongo dira asko, eta domekatik aurrera kirol hau praktikatzeko ez da inongo arazorik izango, betiere neurriak eta arrantzan egiteko lekuak kontutan hartzen badira. Ingurietan arrantza egiteko lekurik aproposenak Aramaio eta Uribarri Ganboa dira. Kanabera da ibaietako arrainak harrapatzeko baimendutako tresna bakarra. Bizkaian eta Gipuzkoan arrantzale bakoitzak bi kanabera erabili ahal izango ditu, baina Araban bat bakarrik erabili ahal izango da. Lagungarri gisa solabardoa edota sare-zorroa erabili ahal izango da, baina elementu hauek kanaberaz harrapatuta-

<p>ACOTADO DE PESCA ARRANTZA MUGABARRUA</p> <p>←</p> <p>NOIZKO ?</p>	<p>ZONA LIBRE DE PESCA</p> <p>SIN MUERTE HIL GABEKO</p> <p>ARRANTZA ESPARRUA</p> <p>→</p> <p>ARRASATEKO ARRANTZA EAK</p>  
---	--

ko arrainak urretatik ateratzen laguntzeko bakarrik erabiliko dira. Horrez gain, neurritz kanpoko arrainak hartuz gero isun gogorak izango dira, eta hau gutxi balitz arrantzan egiteko

ordutegi finko bat dago.

Neurri hauek guztiak kontutan izanez gero, arratsalde lasaiak igarotzeko aukera bikaina eskeintzen digu kirol honek.



WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain


PVC-zko ate eta leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape kortinak,
Kortinoba, testila...

SASKIBALOA Martxa hartzen



Ederki hasi du Arrasate-Kenci taldeak EBA ligara igotzeko bigarren itzulia. Neurketa irabaztea garrantzitsuagoa izan zen, baina are garrantzitsuagoa izan zen etxeko taldeak izandako jarrera, joko eta kantxako nagusitasuna. Siglo XXI taldea izan zuten aurrez aurre, eta arrasatearrak uste baino errazago nagusitu ziren. Hasiera-hasieratik, etxekoek erritmo oso gogorra jarri zuten. Defentsan lapurturiko baloiak kontraeraso azkarretan amaitzen ziren, eta etxeko taldeak abantailari eusten jakin zuen. Azken minutuak izan ziren zailenak eta neke eta pertsonalen eraginez, markagailua estutzen joan zen. Luzapena izango zela uste zenean, jaurtiketa libreetan eta defentsan erakutsitako segurtasunari esker puntuak etxean geratu ziren. 99-95 izan zen azken emaitza.


ERRUGBIA Zelai horretan zer?



Garagartzako "zelaian" ez genuen partidurik onik ikusi, baina hor ondo jokatzeko gai denak meritu galanta du. Zarautz taldea izan zen Gara-

gartzan lokaztera hurbildu zen taldea (besterik ez zuten egin), eta puntu bila etorri baziren ere, arropa zikina besterik ez zuten eraman. Arrasatek hasierako minutuetan lortu zituen partidua irabazteko behar zituen puntuak. 15 eta 0 aurreratu, eta gero, eutsi besterik ez zioten egin, eta zarauztarrek pixkanaka-pixkanaka aurrera egin zuten, baina 13 puntu besterik ez zituzten lortu. Asteburu honetan etxeko taldeak Eibarren aurka neurtuko dituzte indarrak, eta puntuak garrantzitsuak badira ere, motibazioa benetako zelai batean jokatu behar da. Benetako errugbia Eibarren izango da beraz.


FUTBOLA Agur bolada onari



Zapatuan Mondrak Ordiziaren aurka neurtu zituzten indarrak, eta aspaldian etxeko taldeak emaitza onak lortu baditu ere, Raulen mutilak esku hutsik etorri ziren. Partidua ederki hasi zuten, eta Jonek 0 eta 1 lekoa lortu zuen kórner bat errematatu eta gero. Hala ere, lehen zatia amaitu aurretik Ordiziak emaitzari buelta eman zion. Bigarren zatian, taldeak ez zuen erreakzionatu, eta mondragoez hiru garren gola jaso zuten. Asteburu honetan Tolosalearen aurka irabazi

egin beharko dute, nahiz eta goiko postuak urrun dauden. Hala ere, oraindik puntu asko gelditzen dira, eta ez dago soberan Atxabalpera hurbildutakoiei poztasun bat ematea.

ESKUBALOA Ezustea



Noizean behin horrelakoak ere gertatzen dira. Sailkapeneko lehenari irabazi, bigarrenari ere irabazi, eta azkenaurrekoa datorrenean, galdu. Arrasate Almen taldeak Musakolan jokatu behar izan zuen, eta kantxa berrian, Bernardoren mutilak ez zuten zorte handirik izan. Lehen zatian berdintasuna izan zen nagusi, nahiz eta mutrikuarrak beti aurretik izan ziren. Kanpokoen joko defentsa onean oinarritu zen, eta etxeko jokalariek golak egiteko zailtasun handiak izan zituzten. Bigarren zatiko hasierako minutuak benetan txarrak izan ziren arrasatearrentzat. Jaujak lau gol segidan lortu zituen, eta etxeko taldea, partiduari buelta eman nahian, azkar jokatzeko hasi zen, baina hobera egin beharrean, kalterako izan zen. Talde beterano bat tokatu zitzaizen arrasatearrei, eta zapatuan argi geratu zen esperientziak asko balio duela. Horrelakoetatik ikasten da. 17 eta 22 izan zen azken emaitza.

Emaitzak

ESKUBALOA

• Nagusiak

Arrasate Almen 17 - Mutriku 22

SASKIBALOA

• Lehen mailakoak

Kenci Arrasate 99 - Siglo XXI 95

FUTBOLA

• Erregional maila

Ordizia 3 - Mondra 1

• Neskak

Mondra 1 - Bergara 1

Jokatzekoak

ESKUBALOA

• Nagusiak

Arrasate Almen - Urnieta Zapatuan, 17:00etan Iturripen

SASKIBALOA

• Kadete mutilak

Kenci Arrasate - Easo B Zapatuan 12:15ean Musakolan

FUTBOLA

• Bigarren kadeteak

Mondra - San Patricio Zapatuan, 11:00etan

• Lehen erregionala

Mondra - Tolosaldea Zapatuan, 16:15ean

• Lehen mailako gazteak

Mondra - Bergara Zapatuan, 16:15ean

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Zaldibarko areto **futbola**

Emaitzak

A taldea

Txeyenex 10 – Serengeti 4
 AL Ion 7 – Leya 6
 IKP 5 – Komando Alpargat 6
 YK Azkena 3 – Dribling 4
 Goma2 3 – Kanp Harrobia 4
 Aurrera Bolie 4 – Betrayer 4
 AC Surcos 1 – Katxiporra 0
 Bikain Akad 9 – Lasagabaster 8

B taldea

Rayo Aldeano 0 – Full Duplex 7
 Alai Gozokiak 0 – AT Celaya 8
 Pepelus.insero.com 4 – Sas T 6
 Usotz Potroak 6 – Abocajarro 4
 Akta 12 – New Makai 5
 KJ Basati 5 – Irati STS 8
 Kamasutra 6 – Etxerat 1
 Fragel Gol 3 – DKB Kobate 3
 Totx 2 – EPEH 5

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	14	11	1	2	64	33	23
Aurrera Bolie	14	10	2	2	58	30	22
Kom Alpargat	14	10	1	3	68	56	21
Bikain Akad	14	8	4	2	79	54	20
Lasagabaster	14	9	2	3	69	43	20
AC Surcos	14	8	4	2	60	51	20
YK Azkena	14	9	2	3	54	38	20
Goma 2	14	7	3	4	65	48	17
IKP	14	8	1	5	55	55	17
Serengeti	13	5	3	5	41	49	13
Katxiporra	14	5	1	8	42	59	11
Kanp Harrob	14	5	1	8	39	58	11
Leya	13	3	4	6	35	41	10
Txeyenex	14	4	0	10	43	61	8
Betrayer	14	1	3	10	55	72	5
AL Ion	14	2	1	11	48	102	5
Makanaki	14	2	1	11	15	23	5
The Pippol	14	0	0	14	7	24	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	13	11	1	1	64	21	23
Etxerat	13	10	1	2	82	37	21
AT Celaya	13	9	1	3	59	41	19
Rayo Aldeano	14	8	2	4	77	51	18
Kamasutra	14	7	3	3	72	38	17
Irati STS	13	8	1	4	73	47	17
Usotz Potroak	13	8	1	4	61	30	17
Fragel Gol	13	7	1	5	57	49	15
Pepelus.com	13	7	0	6	46	43	14
AKTA	14	6	1	7	62	54	13
Full Duplex	13	6	1	6	54	42	13
DKB Kobate	13	5	3	5	47	47	13
EPEH	12	6	1	5	41	57	13
KJ Basati	13	4	1	8	60	60	9
Txotx	14	3	2	9	29	62	8
Alai Gozokiak	13	2	1	10	32	69	5
Sas T	13	2	1	10	32	78	5
Abocajarro	13	2	0	11	43	84	4
New Makai	13	2	0	11	25	100	4



ZIGORRA

Zapatuan, Kamasutrak irabazi egin zion Etxerati, baina goiko postuei heltzeko aukera bikaina galdu dute Sergioren mutilek. Partida arratsaldeko lauretan jokatu zuten, baina ordubete lehenago Rayo Aldeano eta Full Duplex taldeen arteko zeingehiagokan epaile lanak egin behar zituzten. Eginbehar horiek ez zituzten bete, eta antolatzaileek bi puntu eta fidantza kendu dizkiote taldeari. Hurren-

goan, argiago ibili, edo zuzentzaileari kontuak eskatu.

NEURKETA INTERESGARRIA

Zapatu eguerdian norgehiagoka interesgarria jokatuko dute Iriztu eta Etxerat taldeek. Bi talde horiek B multzoko goiko postuetan daude, eta multzo horretako liderrak izateko asmotan izerdituko dira; izan ere, bi taldeen artean 2 puntuko aldea besterik ez dago.

Hurrengo partidak / 15. jardunaldia

Martxoak 17, zapatua

Zaldibar

09:50 Bikain Akademia – Serengeti
 11:00 Kamasutra – Alai Gozokiak
 12:00 Etxerat taberna – Iriztu
 13:00 Txeyenex – YK Azkena
 14:00 Usotz Potroak – Akta
 15:00 Aurrera Bolie – IKP
 16:00 DKB Kobate – Abocajarro
 17:00 Kanp harrobia – Txap Dribling
 18:00 Txotx – AT Celaya

Iturripe A

14:50 EPEH – Sas T

Epailea
 Alai Gozokiak
 Serengeti
 Kamasutra
 Iriztu
 Txeyenex
 Akta
 IKP
 DKB Kobate
 Kanp Harrobia

AC Surcos

16:00 AC Surcos – AL Ion

EPEH

Iturripe B

14:50 Irati STS – New Makai
 16:00 Leya – Lasagabaster

Leya
 Irati STS

Martxoak 18, domeka

Zaldibar

11:50 KJ Basati – Pepelus.com
 13:00 Fragel Gol – Full Duplex

Fragel Gol
 Pepelus.com

Atsedena: Rayo Aldeano, Goma 2, Komando Alpargat, Betrayer




Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Pablo Ibarren lehengusina arrasatearrarekin berbetan

Igo Autobusera Eguaztenean 10:15ean

Pablo Ibar Floridako Presondegiko Federalesko heriotzarén korridorean dago. Pilare Pereda arrasatearra da eta Pablaren lehengusina. Pilare da, gainera, Ibar familiaren bozemailea.

Pablaren egoera zein den azalduko du Pilarek, martxoaren 21ean, goizeko 10:15ean.

Pablo Ibar 1994an atxilotu zuten, eta epaileak heriotza- zigorra ezarri zion joan den urteko abuztuaren 28an. Epailearen erabakiak lur jota utzi du Ibar familia guztia, baina ez dute etsi, eta beste epaiketa bat egiteko ape-



lazioa prestatzen hasi dira. Apelazioa aurkezteko, hala ere, 180 milioi inguru beharko dituztela uste dute familiaratekoek.

Chiapas

Martitzenean, itsasoz bestalde egingo du 107.7ko autobusak, Chiapasera hurbilduko da eta. Zonaldea eta indigenak ondo ezagutzen dituen "Turre" eskoriatzarra izango da elkarrizketatua. Chiapastik heldu berri denez, azken berriak aztertuko ditugu berarekin batera. Martxoaren 20an, goizeko 10:15ean.

Oscar sarien kiniela

Martxo bukaeran, Hollywoodek Oscarrak banatuko ditu. Film faboritoak guztien ahotan daude dagoeneko; baina, zuk zein film duzu gustukoena? Zatoz zinemaren geltokira, eta esku hartu kinielan. Egubakoitzean, martxoak 23, goizeko 10:15ean.

Itoiz biraka, binilo orduan

Eguazteneko, iluntzeko 8etan, disko beltz handiak biraka jartzen ditu Arrasate Irratiak. Oraingo astean, martxoaren 21ean, Itoiz talde handiaren ibilbidea gogoratuko dugu.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Martxoaren 22an: **Apocalyptica** (sarrera **1**)
 Martxoaren 23an: **Less than Jake** (sarrera **1**)
 Martxoaren 24an: **Halloween** (sarrera **1**)
 Martxoaren 25an: **Gazza strippers + NCC** (sarrera **1**)

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidali gurea: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
 09:55 Eguneko hitzorduak.
 10:00 Igo autobusera I.
 11:00 Albistegia.
 11:15 Igo autobusera II.
 12:30 Agenda, eskelak...
 12:45 Albistegi nagusia.
 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

20:00 Jokoz Kanpo.
 21:00 Draxtor.
 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

20:00 Hi bizi hadi.
 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

20:00 Binilo ordua.
 21:00 KK2A.

EGUENEAN

20:00 Ostegun-Ero.
 21:00 Arakatzen.

EGUBAKOITZEAN

20:00 Planing Prest.
 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

10:00 Bihurrikerietan.
 11:00 Musika klasikoa.
 12:00 Bi zoro ta zu.

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

TOKI EDER KAFFE TABERNA

- pintxoak aukeran
- Kazuelatxoak
- Bokadiloak

Bñez D.K., 11 (San Andres auzoa)
 943 79 31 45



Antzinako Goikobaluren lehen plano eder baten argazkia ekarri dugu oraingoan geure atal honetara. 1963. urte ingurukoa da; benetan aproposa herriak azken urteotan izan dituen aldaketak sumatzeko. Argi eta garbi ikusten dugu, adibidez,

Mondragoeko hiribildua edo Alde Zaharra, hortxe, etxe multzoa ikusi dezakegun gune horixe. Zerrajera ere tente-tente ageri da, eta Grupo San Juan-eko etxebizitzak egin berri. Goikobalutik gertu, esku-ma alderuntz, Kontzesiñoko komentua ikusi genezake. Ostera, ezkerraldera begiratu z gero, zelai huts zabala

dago; horixe da gaur egungo Uarkape, Altamira eta inguruak. Apurtxo bat beherago, berriz, Aldai kanposantua ere ikusi dezakegu, eta horren parean, oraingo Ertzainetxea dagoen lekua ondoan, Villa Amparo etxea dago, gaur egun esisititzen ez dena; eta Obernerreka egiteko zegoen.

Zigorrola auzora joanez

gero, orduan herritik apurtxo bat aldentuta zegoela ikusten dugu, tarteko etxebizitza barik.

Argazkia:
udal artxiboa.
Berriemailea:
Eugenio Iñarra.



Parques y Jardines




Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



GAZTEENTZAKO MODA

SYBIJAI

Irizar pasealekua, 1 Tel.: 943 76 42 41 BERGARA



Josefina Serrano
SAN SEBASTIAN



LASER
Lépil

GUSTURA EZ BAZAUDE
%100
DIRUA ITZULIKO DIZUGU



Txaro Carrizo

ESLU

LASER BIDEZKO BEHIN-BETIKO LEHENENGO DEPILAZIO METODOA

- ▲ Gizon zein emakumeentzako, gorputzeko edozein ataletan.
- ▲ Minik gabekoa eta efekturik ez daukana.
- ▲ Bezere bakoitzari bermaturiko kontratu bat ziurtatzen zaio.
- ▲ Eskatu ezazu azterketa eta aurrekontua dohainik.

• Eta gainera... Depilazioak, aurpegi eta gorputzeko tratamenduak, manikurak, makilajeak...

MARTXOA ETA APIRILERAKO ESKAINTZA BEREZIA
Helbide aldaketa dela eta solarium eskaintza berezia.
10 sesio 6.000 pezeta.

Olarte, 18-behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 37 88



RENAULT

Renault Laguna berriak
toki harrigarrietara eraman zaitzake



GILTZA BARIKO AUTOA AURKEZTEN DIZUGU



MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68
Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72